

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

#### **379/2020 Foru Agindua, urriaren 8koa. Desjabetze Atalaren buru lanpostua (kodea: 1097.001) berariazko lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren ebazpena**

Urtarrilaren 31ko 64/2020 Foru Aginduaren bidez, Desjabetze Atalaren buru lanpostua (kodea: 1097.001) berariazko lehiaketa bidez hornitzeko deialdia egin zen. Foru agindu hori 2020ko otsailaren 12an argitaratu zen ALHAOn (17. zk.).

Merezimenduen balioespenaren emaitzak argitaratuta, Balioespen Batzordeak proposatzen du lanpostu hori M<sup>a</sup> Nieves Viloría Ocharan andreari esleitzea.

Alde batetik, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren, eta diputatu nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Dekretuak aldatu egin zuen foru dekretu hori. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. M<sup>a</sup> Nieves Viloría Ocharan andrea behin betiko atxikitzea Desjabetze Atalaren buru lanpostura (kodea: 1097.001).

Bigarrena. Ezin zaio uko egin esleitutako lanpostuari eta, lanpostuaz jabetu ondorengo bi urteetan, ezin izango du parte hartu lanpostuak betetzeko deitutako lehiaketetan, baldin eta funtzionarioak lanpostu hori galtzen ez badu Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 50. artikulua 3. apartatua eta 4. apartatuaren a) letran xedatutakoarekin bat etorritz.

Hirugarrena. 2020ko urriaren 25ean utziko du jatorrizko lanpostua.

Laugarrena. 2020ko urriaren 26an jabetuko da esleitutako lanpostuaz.

Bosgarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen erakundean bertan; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 8a

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**